

## Jainkoak Aita-Ama maitasunaz maite gaitu

### 5. saioa

Guraso izatearen esperientzian sakontzeko aukera izan dugu aurreko saioan. Oraingo honetan, laguntasuna eman nahi da, ondorengo antzemateko eta berriz bizitzeko: esperientzia horren bitartez, Jainkoak gutako bakoitza Aita-Ama maitasunaz maite gaituela sentitu.

### SAIOAREN HELBURUAK

Helburuak:

- Jainkoaz dudan irudiaz jabetu eta Jesusengan agertzeraren ematen zaigun Jainkoaren aurpegiarekin alderatu
- Aitatasun-amatasunak Jainkoa Aita-Ama bezala sentitzen eta Berarekiko seme-alabatasuna sendotzen laguntzen didala ikusi
- Gure seme eta alabentzat Jainkoaren irudi garelara antzeman

Haurrak:

- Aita-Amak maitatu eta zaindu egiten gaituela konturatu
- Jainko Aita-Amari bere maitasun eta zainketa eskertu

### GARAPENA

Heldu eta haurrak elkarrekin daudela, aurkezpena egingo da beste behin ere, izan daitezkeen taldekide berriei aparteko arreta eskainiz. Garrantzitsua da hasierako harrera eta aurkezpen honetan arreta jartzea, taldean ezinbesteko konfiantzazko giroa sor dadin.

Eragileak, gainera, saioaren aurkezpen orokorra egingo du. Ondoren, heldu eta haurrak banandu eta leku desberdinetan elkartuko dira.

### HELDUAK

Eragileak sarrera egingo du, gaia aurkezteko, ondorengo ideia hauek erabiliz<sup>1</sup>.

*Gure seme-alabak erabat aldatu du gure bizitza. Orain, lehen burutik pasatu ere egiten ez zitzaizkigun gauzak esperimendatzen ditugu. Egunean zehar, uneoro dugu gogoan. Familia*

---

<sup>1</sup> Ondorengo hauetatik hartuta eta berreginda:

- Iruña eta Tuteran, Bilbao, Donostia eta Gasteizko elizbarrutietako Ordezkaritza eta Idazkaritzek argitaratutako 0-6 urte bitarteko *erlijio esnatzea*. Besoetan liburua, 46-47 or.
- Katekesirako Galiziako Idazkaritzak, *Confirmados en la fe 1*, 13. gaia: Jesus nos descubre el rostro de Dios, 80-83 or.

*bizitzako ordutegi eta bizitasuna markatzen du. Une gehienetan gaude berataz hitz egiten, bai geure artean eta baita senide eta adiskideekin ere. Kontu eta arreta handiz zaintzen dugu, behar duen guztian. Orduak ematen ditugu berari begiratzen, bere jarrera, zeinu eta mugimenduei begiratzen diegu eta dena komentatzen dugu. Bere ondoan ez gaudenean, irudimenak berehala garamatza harengana eta bere irudiak ondo sentiarazten gaituen zerbait pizten du gure barruan. Gozatu egiten dugu makurtu eta begiratu, guregana hurbilduz, besoetan hartuz, ferekatuz, gozotasunez laztanduz. Beharbada, ez genuen uste haur batenganako hainbeste samurtasun izan genezakeenik... Baina, geure seme-alaba da!*

*Horrela ote da? Bat zatozte esandakoarekin?*

*Begira, Itun Zaharreko idazkia irakurriko dizuet Bibliatik; bertan Jainkoak bere herriari hitz egiten dio Oseas profetaren bitartez:*

**Oseas 11, 3-4:** "Nik erakutsi nion oinez... besoetan eraman nuen... Amodio-lokarriz erakartzen nituen, maitasun-loturaz. Haurtxoa musuraino jasotzen duenaren antzeko nintzen haientzat; makurtu eta jaten ematen nion".

*Zer diotsue Hitz honek? (eman astia, lehen zirrarak adieraz ditzaten). Biblian adierazten denez, amak edo aitak seme-alabekin duen jokaera da Jainkoak erakusten duena. Jainkoak bere herriari hurbiltasuna eta arreta eskaintzen diola beti jakinarazten diote Profetek Israel herriari; gertukoa, arretatsua da beti, herria Berarengandik aldentuta dagoela dirudienean ere. Profetek irudi bat dute gustukoen, Jainkoaren maitasuna betierekoa dela adierazteko: amak edo aitak seme-alaba txikiei erakusten dizkien arretak, samurtasuna eta maitasuna.*

*Jesusek, hitzez, zeinuez eta bizitza osoaz, Jainkoa gutariko bakoitzarentzat Aita dela, gu zaintzen buru-belarri jarduten duela, gure euskarri dela eta samurtasunez inguratzen gaituela agertzeraz ematen digu. Harrera egiten digu, gure bekatuak barkatzen ditu eta Aita maitasunez maite gaitu.*

*Ikus dezagun.*

"Jesusen Jainkoa" agirian agertzen diren Bibliako txatalak taldekideen artean banatu. Bakoitzari pare bat eman eta taldekide gehiago badago, errepikaturik eman. Saioaren azkenean, pasarte guztiak jasotzen dituen agiria partaide guziei ematea litzateke egokiena.

Eman astia, bakoitzak egokitu zaion txatala irakur dezan; ondoren, boz goraz esango dituzte delako pasarte horretan jasotzen diren Jainkoaren ezaugarriak. Aipatzen diren ezaugarri guzti horiek kartulina batean jaso daitezke, "laburpen-murala" osatuz.

Galdera hauen haritik, elkarrizketan jardungo dute:

- Agertzen dira ezaugarri horiek Jainkoaz dudan irudian?
- Horrela sentitzen dut Jainkoa, maitatzen eta zaintzen nauen Aita-Ama bezala?
- Bizi dudan amatasun-aitatasun esperientziak, aldatu ote du Jainkoaz dudan irudia edota Berarekiko harremana?

Eragileak beste elementu bat sartuko du:

*Gurasook, aita eta amok, gara Jainkoaren lehen aurpegia gure seme-alabarentzat. Beragatik eta berarekin egiten duguna, oinarrizko esperientzia da bere bizitzan eta Jainkoa bere seme eta alaba garen gutariko bakoitzarentzat zer den konturatzeko balio dio.*

*Ama edo aita bezala, gure zeinu eta laztanetan, hitz eta arretetan, bihotz-bihotzez haurrari transmititzen diogun maitasuna, Jainkoak bere kreatura horri dion samurtasun eta maitasunaren zeinu eta adierazpen da.*

*Inoiz ez zaigu burutik pasatu ere, Jainkoak bere mezulari bihur gintezkeela gure seme edo alabari bere burua agertzera emateko. Ba, mezulari gara!*

Elkarrizketan jardungo dugu berriz ere:

- Jabeturik gaude gure erantzukizunaz? Onartzen dugu erantzukizun hori?
- Nola eskertzen diogu Jainkoari konfiantza hori?
- Nola prestatzen gara gauzatzeko?

## **HAURRAK**

Aldez aurretik prest izango ditugu material batzuk, proposatuko dugun dinamika garatu ahal izateko:

Folioak, txori eta loreen irudiekin margotzeko

Pinturak, errotuladoreak, guraizeak..

Kateorrazak, kordoia edo goma, kareta edo kartelak lotzeko

Zirkuluan jarrita, erlaxatzeko ariketa batzuk egingo ditugu, besteak beste, haurren arreta erakarri ahal izateko (1. saioan proposatutako ariketa berak egin daitezke).

Antzezpena egingo dugula azalduko diegu haurrei. Horretarako, maskara batzuk egin behar dituzte, gero ipintzeko. Beste aukera bat, hurrek folioak lepoan zintzilikatzea edo kamisetan lotzea da, kartel erara. Txori eta loren irudiak dituzten orrialdeak banatu, hurrek margotu eta ebaki ditzaten, gero antzezpenean erabiltzeko.

Haur bakoitzak bere pertsonaia (txoria edo lorea) prest duenean, antzezpena aurkeztu eta azalduko zaie. Mt 6, 25-30 pasartea hartuko da oinarriztat: Jesusek dei egiten die ikasleei gauza materialez ez ezik Erreinuaz ardura daitezen eta Jainko Aitak gehien behar duguna ematen digula ikus dezaten. Egokia litzateke Jainkoaren ontasunaren ikuspuntutik lantzea, Berak onena ematen digulako, Aita Ona delako, maite gaituelako eta ondo baino hobeto zaintzen gaituelako.

Hauek lirateke pertsonaiak: kontatzailea, Jesus, txoriak eta loreak (haurrak txori eta loreak izango dira eta eragileak, kontatzailea eta Jesus).

**Kontatzailea:** "Jesus gure adiskideak kontatzen zituen istorioetako baten berri emango dizuet. Egun batean, adiskideekin landaz landa paseoan zebilela, txori batzuk ikusi zituen

jaten (haur txoria), beste batzuk abesten (haur txori kantariak) eta hara eta hona hegan zebiltzanak (haur txori hegalariak). Eta esan zuen:

**“Hara, begira zein txori politak eta zein zorioneko dauden, jaten, abesten eta hegan egiten”.**

Aurrera egin zuen eta landa apaintzen zuten loreak (haurren kopuruaren arabera, talde bat edo batzuk osatu daitezke) ikusi zituen eta esan zien:

**“Begira zein lore politak. Kolore eta itxura guztietakoak daude. Eskerrik asko, Aita, eman dizkiguzun lore eta txori guztiengatik. Jainkoak lore eta txori hauek zaintzen baditu, nola ez gaitu, ba, gu zainduko? Eskerrik asko, Aita ona** (hau denek, txori, lore nahiz entzuleek, errepikatuko dute).

Zutitu, zirkulua egin eta elkarri eskua emanaz, eskerrak emango dituzte hainbat aldiz.

Antzezpena amaiturik, elkarrizketan jardungo da hurrekin, Aita Jainkoak zer eman digun eta nola zaintzen gaituen galdetuz. Guzti horrengatik ere eskerrak emango ditugu.

### **AZKEN UNEA DENAK BATERA**

Saioari amaiera emateko, guraso eta seme-alabak elkartu egingo dira, azken unea elkarrekin egiteko. Haurrek eta beren eragileek antzezpena egingo dute, Aita Jainkoari zergatik ematen dizkiogun eskerrak azalduz.

Eta denok ikasiko dugu “Eretz”<sup>2</sup> dantza, esker ona adierazten du-eta. Aurretik dantza kontenplariaren inguruko azalpenak ematea komeni da: gure gorputz osoaz otoitz egiteko era bat da, Jainkoari nahi duguna esateko bidea. Kasu honetan, esker ona adieraziko diogu, maite gaituelako eta Aita-Ama bezala zaintzen gaituelako.

(Hemen aurki dezakezu “Eretz” doinua:

<http://www.monjasdesuesa.org/wp-content/uploads/2015/07/Eretz.mp3>

Eta hurrengo estekan, urratsak ikasteko irudiak aurkituko dituzu:

<https://www.youtube.com/watch?v=EF2JtUxRUeY>)

(4. saioan “Esker ona biziarengatik” ospakizuna egin ez bada, une honetan egin daiteke, saioari eta I. multzoari amaiera emanaz. Gidoia, 4. saioari dagozkion materialetan aurkitu daiteke).

---

<sup>2</sup> ‘Eretz’ hitza hebreeratik hartuta dago eta lurra, herrialdea adierazten du. Jainkoak Israel bere herriari agindutako lurraldea, Moisesen gidaritzari esker iritsiko dena, gogorarazten du. Israel herriak bere ontasuna eta babesa eskertzen dizkio Jainkoari.